

KALEAK LEHERTZEKO, A30  
NESKA\*GAZTEOK


# GREBA FEMINISTA OROKORRERA!

ZER AURKITUKO DUZUE DOKUMENTU HONETAN?

NESKA\*GAZTEOK

A30ean GREBA EGITEKO **10** ARRAZOI

GREBARI BEGIRA, HERRIETARAKO  
**EKIMENZA EREDUAK**



SISTEMAK ARAUTZEN DU  
NORK **MEREZI DUEN ZAINZA**  
ETA NORK EZ, BAITA NORI  
DAGOKION ZAINTZA ETA NORI  
EZ ERE. **AZAROK 30**EKO GREBA  
ZAINZA LANAK **SISTEMATIKOKI**  
EMAKUMEON GAIN JARTZEN  
DITUZTEN GIZONAK,  
PRIBATIZAZIOA SUSTATZEN ARI  
DIREN INSTITUZIO PUBLIKOAK  
ETA PREKARIZAZIOAN  
SAKONTZEN ARI DIREN  
ENPRESAK **SEINALATZEKO**  
BALIATUKO DUGU.

# A30

## GREBARA!

GURE **BIZITZEN AURKA**  
ANTOLATZEN DEN SISTEMA HAU  
ERREPRODUZITUKO EZ DUGULAKO  
ETA ZAINZARAKO ESKUBIDE  
KOLEKTIBOA ERDIESTEKO  
MODU BAKARRA MOBILIZATZEA,  
ANTOLATZEA ETA BORROKATZEA  
DELAKO.

# NESKA\* GAZTEOK A30EAN GREBA EGITEKO 10 ARRAZOI

## **1. Beste familietako haur txikien zaintza-lana baldintza prekarioetan egitera behartzen gaituztelako...**

*Esplotazioari laguntza, sakrifikazioa edo eskuzabaltasuna deituz.*

## **2. Mutil lagunen sostengu emozional guztiaz arduratzen garelako...**

*Beraiek gu gaizki gaudela ikusi ere egiten ez dutenean.*

## **3. Familia barruan amek egiten dituzten zaintza-lanei maitasuna deitzen diotelako...**

*Lan ordu inposatuak direnean.*

## **4. Eskola partikularrak ematen ditugun neska\* gazteon lan baldintzak hobetzearen aldarrikapena, kapritxo indibidualistatzat jotzen dutelako...**

*Lan baldintza duinen aldarrikapena denean.*

## **5. Lagunak diren mutilen psikologo lanak egiteaz nazkatuta gaudelako...**

*Parrandarako, ondo pasatzeko, gurekin kontatzen ez dutenean.*

## **6. Hezkuntza, osasungintza eta sare publikoa ahultzen ari direlako...**

*Instituzioetatik jendartearen ongizatea bilatu ordez, azpikontratazioak gauzatu eta indar errepresiboak edo proiektu txikitzaileak finantzatzen ari diren bitartean.*

## **7. Ikasguneetan, irakasleek, zailtasunak dituzten ikasle mutilei laguntzera bultzatu gaituztelako...**

*Sozializazio eta heziketa patriarkalari erantzun eta mutilengan bere burua ez den beste inor zaintzearen ardurarik jarri ez duten bitartean.*

## **8. Pribatizazioa sustatzen ari direlako...**

*Pribatizazioak etxeetan emakumeen lan karga handiagotzea esan nahi duenean.*

## **9. Militantzia mistoak hil egiten gaituelako...**

*Zaindu behar dugunak eta erabakiak hartzen dituztenak bereizten gaituzten bitartean.*

## **10. Neska\* Gazteok sistema hau zainduko ez dugulako...**

**GREBA FEMINISTA  
OROKORRERA!**

# HERRIENTZAKO EKIMENTZA EREDUAK

Dokumentu honetan azaroak 30-eko greba feminista orokorrera begirako ekimentza eredu batzuk azaltzen dira. Helburua, gure herri eta auzoak astintzea da. Horretarako baliatu, Gazte Mugimenduak, Neska\* Gazte Taldeak, espazio feministak... Astindu, mugitu, eragin buruari eta izan irudimentsu! Hona hemen A30aren bueltan egiteko ekimenen ideia sorta bat:

## Ekimen motak:

- *Performance-ak / espazio okupazioak:*
  - Hauen ezaugarritzea sinatu behar izanik gabe, ekimena N\*G-ek antolatua dela ulertaraztea da. Hots, ekimenak N\*GT-en izenean egitea da helburua, baina hauek gurekin identifikagarriak izatea. Horretarako erabili gure ikur eta sinboloak: buruberoakiak, musika, kolore horia eta morea...
  - Kaleak hartu eta desnormalizatu!
  - Adibidea:
    - Neska\* gazteok egiten ditugun zaintza lanak sinbolizatzen dituen elementuz bete herriko plazak. Lan erremuneratu edo ez erremuneratuak izan daitezke: haurren zaintza kontraturik gabe, klase partikularrak, espazio militanteetan betetzen ditugunak, aisialdian... Hauek ulertzeko, pankarten bidez mezua argitu eta eskuorri banaketa egin momentuan.
  - Uniak – gradu feminizatuak
    - Galderen bidez, gradu hauetan (magisteritza, erizaintza, pedagogia, psikologia,...) dagoen feminizazio maila zalantzan jarri eta mezu interplatiboekin bete pasilloak:
      - Zergatik gara gure graduetan gehienak emakumeak? Zertara kondenatu nahi gaituzte? ...
  - FPak
    - FP feminizatuetan aurreko eredu antzerakoa erabili daitezke.
    - Eskuorri banaketak FPen ateetan, etab.
- *Mural margoketak*
  - A30era dei eginez eta neska\* gazteok grebara joateko 11 arrazoiak sinbolizatzen dituen irudi / aldarrikapenekin muralak sortu eta herriko pareta ikusgarrietan margotu.

- *Markajeak*
  - Neska\* gazteok zaintzak esplotazio baldintzetan egitera behartzen gaituzten espazio ezberdinak aldarrikapenekin markatu. Leku hauetako adibide batzuk:
    - Akademia multinazionalak, klaseak modu prekarioan ematen joaten garenak, hurrez zaintzaz arduratzen garenak...
    - Instituzioak markatu ditezke zerbitzu horien pribatizazioagatik.
    - Hiriburuetan dauden gobernu organo ezberinetan egin daiteke, egoera honekiko duten erantzukizuna seinalatuz.

### **Sozializatorako metodo ezberdinak:**

- *Eskuorri banaketak:*
  - Ikastetxe/hezigune sarreratan.
  - Herrietako plazetan.
  - Pintxopotea, ostiral eta larunbatetako poteo momentuak, etab baliatu, jende asko pilatzen den eremuak izaten dira.
  - Transporte publiko sarrera/irteeretan. Goizetan jendea lanera eta ikastera doanean autobus, tren edo metro sarrera eta irteeretan jarri gaitzke.
- *Markesinak:*
  - 11 arrazoiak sozializatzeko autobusetako markesinak erabili daitezke. Jende asko igarotzen diren espazioak dira hauek. Infografiak bertan jarri.
- *Propaganda kedada masiboak:*
  - Deialdi zabalak egin daitezke herrietako gazte feministak gerturatzeko. Hauek pankartak egin, zein jartzeko izan daitezke. Baita, kartelak, pegatinak... jartzeko ere. Ongi egon daiteke asteko momentu klabe bat jartzea; adb: ostiralero hemendik eta grebara 19:00etan.
  - Ohiko lekuez gain beste espazio batzuk ere baliatu pankartak, panakarta masiboak, etab jartzeko. Adb:
    - Auzokideekin hitz eginda alde zaharretako balkoietan jarri daitezke.
    - Autopistetako zubietan.

- Pintada originalak
  - 30 km/h-ko joateko lekuetan A - grebara jarri, bai posteetan eta baita lurreko zenbakiak probestuz ere: "A30 grebara!" marraztuz.
- *Egun bereziak erabili.*
  - Gabonen bueltan azaroan zehar kontsumoari lotutako egun asko sortzen dira, Black Friday (Azaroak 24) besteak beste. Baliatu horrelako uneak zaintza lanen esplotazioa seinalatzeko.

**HONETAZ GUZTIAZ PENTSATU, FORMA EMAN,  
KONSPIRATU ETA ANTOLATZEKO, EGIN NESKA\*GAZTE  
KEDADAK ZEIN GAZTE MUGIMENDUEKIN ASANBLADAK  
ETA **EKIN HERRIA DESNORMALIZATZEARI!****

**A30**

**GREBARA!**

**EUSKAL HERRIKO NESKA\*GAZTEAK**